



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

ALDI BATERAKO KONTRATAZIO ZERRENDAK

48. buletina (2008ko ekainaren 6an argitaratua)

- **Laburpena:**
 1. **Merkataritzako goi mailako teknikari lanpostu bat aldi baterako betetzea**
- **Zehaztapenak:**
 1. **Merkataritzako goi mailako teknikari lanpostu bat aldi baterako betetzea**
 - Ekonomia Sustapenerako Sailean **MERKATARITZAKO GOI MAILAKO TEKNIKARI** lanpostu bat aldi baterako betetzeko kontratazioa egin beharra dago.
 - **Nahitaez bete beharreko baldintzak:**
 - Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziaduna edo Ekonomian lizentziaduna edo Soziologian lizentziaduna izatea.
 - Merkatartizako aholkularitza teknikoko berariazko prestakuntza
 - **Balioetsiko direnak:**
 - Merkatartizako aholkulari tekniko gisa izandako esperientzia.
 - **Kontratu mota:** bitarteko funtzionarioaren kontratua titularra ordeztuko. **Iraupena:** 2009ko abenduaren 31ra arte.
 - **Lanaldi mota eta ordutegia:** Lanaldi osoa. Bulego ordutegia. **Hileko soldata gordina:** 2.939,64 euro.
 - **Lanpostuko zereginak:**
 - Merkatartitza sektorearentzako jardunaldi teknikoak eta biltzarrak antolatzea.
 - Kaleko salmenta kudeatzea.
 - Merkatartitzaren behatokia: sektorekako azterlanak egitea.
 - **Izangaien onarpena** LANGAIren laguntzarekin egingo da ezarritako irizpideei jarraiki. Hortaz, interesaturik bazaude, erakunde horren jendaurreko bulegoetakoren batera jo beharko duzu, eta 162008007551 zenbakiko hautatze prozesuan sar zaitzatela eskatu, **2008ko ekainaren 15era** arte (egun hori barne).
 - **Hautaketa prozesuak** bi zati izango ditu:
Lehenengo, betebeharreko baldintzak dituzten izangaien artean aurre-hautaketa egingo da; "baloratuko diren baldintzak" atalean jasotzen diren merezimenduak kontuan hartuta, 10 hoberenak aukeratuko dira.
Prozesuaren bigarren zatian aurre-hautaketan aukeratutakoek lanpostuaren zereginen inguruko hautatze proba egingo dute.
 - Hautatze proba egiteko **onartu eta bazter utzitako pertsonen** zerrendari buruzko informazioa **2008ko ekainaren 18ko** 12:00etatik aurrera emango da, 010 telefonoan (945 161100 GASTEIZTIK

KANPOTIK DEITUZ GERO); era berean, zerrenda argitaratuko da udaletxeko iragarki taulan (Espania plaza) nahiz udalaren web orrian (<http://www.vitoria-gasteiz.org>).

- Informazio gehiago edo interneten bidez izena eman nahi izanez gero, www.lanbide.net orrira jo, bilatzailearen erreferentzia sartuta zuzenean eramango zaitu eskaintzara, eta hor ezartzen den prozedurari jarraitu beharko diozu.

- Funtzio Publikoaren zinegotzi ordezkariaren 2005eko maiatzaren 10eko ebazpenaren bidez onetsi zen "Aldi baterako hautaketa prozesuen prozedura"rekin bat burutuko da deialdi hau. Udalaren web orrian ikus daiteke hori, <http://www.vitoria-gasteiz.org>

- **Argibideetarako telefonoa: 010 (Gasteiztik kanpotik deituz gero: 945 16 11 00)**
- **Udalaren web-orria: <http://www.vitoria-gasteiz.org>**
- **Aurretik argitaratutako beste agiri batzuk:**

Aldi Baterako Kontratazio Zerrendak Kudeatzeko Araudia.

Buletin honen argitalpenari buruzko informazioa eskatzeko nahiz aurrerantzean gehiago ez jasotzeko aski duzu ondoko helbide elektronikora idaztea (izen-deiturak eta nortasun-agiriaren zenbakia adierazi):

seleccpersonal02@vitoria-gasteiz.org
seleccpersonal03@vitoria-gasteiz.org

**HAUTAKETA ETA GARAPEN ATALA
FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA**